

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroak Osasun Mentaleko irakaskuntza-unitate multiprofesional bat izango du

*Foru Gobernuak, berriki, arlo horretan bere espezialistak prestatzeko sistemaren aldeko akreditazioa jaso du Estatuaren eskutik*

Viernes, 16 de septiembre de 2011

Nafarroak Osasun Mentaleko irakaskuntza-unitate multiprofesional bat izango du, izaera multiprofesionaleko lehenengoa Nafarroako Gobernuaren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren barnean. Foru Gobernuak, berriki, arlo horretan bere espezialistak prestatzeko sistemaren aldeko akreditazioa jaso du Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasunerako Ministerioaren eskutik. Hala, arlo horretako espezialista ezberdinen prestakuntza behin betikoz sustatuko da.

Jada abian den Osasun Mentaleko irakaskuntza-planaren aitortpena da hori, eta horren ondorioz, Nafarroan estreinakoz BAME sistemaren bidez Osasun Mentaleko Erizaintzan espezializatutako prestakuntzako 3 lanpostu eskainiko dira. Eskaintza hori urtean Psikiatريان hiru espezialista prestatzeko eta beste hiru Psikologia klinikoan prestatzeko aurretiazko akreditazioaren osagarri da, eta 1984. urtetik eta 1993. urtetik egiten zena, hurrenez hurren.

Irakaskuntza-unitatearen helburua izango da Nafarroako Osasun Mentaleko sarearen giza baliabideak eta laguntza-dispositiboak kapitalizatzea, Psikiatريان, Psikologia klinikoan eta Osasun Mentaleko Erizaintzan espezialistak prestatzeko. Unitate horrek irakaskuntzako metodologia aurreratuenak barnean hartuko ditu: alde batetik, espezialitate bakoitzerako prestakuntza zehatz bat, eta bestetik, Osasun Mentaleko espezialitate guztietarako zeharkako prestakuntza bat. Gainera, kalitate-plan bat garatzea dakar, eta horrek Osasun Mentaleko espezialitate bakoitzaren prestakuntza hobea bermatuko du.

Nafarroako Osasun Mentalaren sareak duen helburua, Foru Erkidegoan buru-desoreken tratamendua era integratuan jorratzea da. Desoreka horiek ohikoenen artean daude, eta biztanlerian ezintasun handiena sortzen dutenak dira. Etiologia eta tratamendua konplexuak dira, faktore biologiko, psikologiko eta sozialek elkar eragiten baitute; hortaz, nahitaez diziplina anitzeko eran jorratzea eskatzen dute, eta Osasun Mentaleko profesional ezberdinek esku-hartzera behartzen du (psikiatruk, psikologoak, erizainak eta gizarte-langileak), gero eta laguntza espezializatuagoa, integratuago batekin eta gaitasunetan oinarritutakoa.

Irakaskuntza-unitatearen akreditaziorako aurkeztutako dokumentazioa txosten zehatz bat izan da. Irakaskuntza-kalitatearen estandarretan egindako txosten honek Nafarroako Osasun Mentaleko laguntza-dispositibo guztiak zehazten ditu.